

Departam ntua eta zenbatekoa	INGURUMENA ETA LURRALDE ANTOLAKETA 07 2013ko aurrekontua.....38.295.431,00€																																			
Programa eta zenbatekoa	Izena: Pasaialdeko Antolaketa eta Sustapena Kodea: 20 Generoaren garrantzia: Ertaina Aurrekontua: 4.010.000,00 €																																			
	1. taula. Programaren aurrekontua eta azken urteetan Departamentuaren aurrekontuarekiko dagokion ehunekoa.																																			
	<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>2011</th> <th>2012</th> <th>2013</th> <th>12/11</th> <th>13/12</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Gastua eurotan</td> <td>2.569.899,16</td> <td>3.496.165,00</td> <td>4.010.000,00</td> <td>% 36,04</td> <td>%14,69</td> </tr> <tr> <td>Departamentuaren aurrekontuaren gaineko ehunekoa</td> <td>% 4,98</td> <td>%8,95</td> <td>%10,71</td> <td>%79,72</td> <td>%19,66</td> </tr> </tbody> </table>						2011	2012	2013	12/11	13/12	Gastua eurotan	2.569.899,16	3.496.165,00	4.010.000,00	% 36,04	%14,69	Departamentuaren aurrekontuaren gaineko ehunekoa	% 4,98	%8,95	%10,71	%79,72	%19,66													
		2011	2012	2013	12/11	13/12																														
	Gastua eurotan	2.569.899,16	3.496.165,00	4.010.000,00	% 36,04	%14,69																														
Departamentuaren aurrekontuaren gaineko ehunekoa	% 4,98	%8,95	%10,71	%79,72	%19,66																															
Aztertzen ari garen programa Departamentuaren aurrekontuaren % 8,95 da eta 2012an duen pisu erlatiboa 2011ko aurrekontuan baino handiagoa da. Adierazi behar da 2011n Departamentua osatzen zuten zuzendaritzak eta 2012an osatzen dutenak ez direla berdinak eta, horregatik, hasteko, aurrekontu osoak eskumen desberdinei erantzuten die.																																				
2. taula. Programaren aurrekontuan eta aurrekontuan jasotako gastuan sartuta dauden jarduera nagusienak.																																				
<table border="1"> <thead> <tr> <th></th> <th>2011</th> <th>2012</th> <th>2013</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Pasaiaiko Udala</td> <td>1.196.427,33</td> <td>3.246.165,00</td> <td>2.510.000,00</td> </tr> <tr> <td>Badia biziberritzea (lonja)</td> <td></td> <td>250.000,00</td> <td>1.500.000,00</td> </tr> <tr> <td>Ortizibia SA</td> <td>25.000,00</td> <td>0</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>Pasaiaiko Portuko Agintaritza</td> <td>254.294,41</td> <td>0</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>Jaizkibia</td> <td>226.698,04</td> <td>0</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>Pasaiaiko masterplana</td> <td>84.960,00</td> <td>0</td> <td>0</td> </tr> <tr> <td>Eraikinak eta bestelako eraikuntzak. Pasaialdea.</td> <td>410.181,99</td> <td>0</td> <td>500.000</td> </tr> </tbody> </table>						2011	2012	2013	Pasaiaiko Udala	1.196.427,33	3.246.165,00	2.510.000,00	Badia biziberritzea (lonja)		250.000,00	1.500.000,00	Ortizibia SA	25.000,00	0	0	Pasaiaiko Portuko Agintaritza	254.294,41	0	0	Jaizkibia	226.698,04	0	0	Pasaiaiko masterplana	84.960,00	0	0	Eraikinak eta bestelako eraikuntzak. Pasaialdea.	410.181,99	0	500.000
	2011	2012	2013																																	
Pasaiaiko Udala	1.196.427,33	3.246.165,00	2.510.000,00																																	
Badia biziberritzea (lonja)		250.000,00	1.500.000,00																																	
Ortizibia SA	25.000,00	0	0																																	
Pasaiaiko Portuko Agintaritza	254.294,41	0	0																																	
Jaizkibia	226.698,04	0	0																																	
Pasaiaiko masterplana	84.960,00	0	0																																	
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak. Pasaialdea.	410.181,99	0	500.000																																	

	Txaparreneko bidegorria	372.337,39	0	0
	GUZTIRA	2.569.899,16	3496.165,00	3.510.000

Xedeak, Hartzailea eta programaren jarduerak	<p>Xedeak:</p> <p>Programaren xedea da beste erakunde batzuekin lankidetzan jardutea Pasaiko badia inguruko udalerrietan hirigintzaren ikuspuntutik degradatutako hiri eremuak berreskuratzea eta biziberritzea eta baita ere beharrezko ekintzak bultzatzea portuan (interes orokorreko azpiegitura) egun erabiltzen ez diren espazioak eskura izateko, hiri zentralitate berria duten gunek sortzeko, ekonomia eta gizartea biziberritze aldera.</p> <p>Jarduerak xedeak hauek izan dira eta izaten jarraitzen dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> . Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna hobetzea, Pasaiko badiako udalerrien artean. . Garraio publikoaz baliatzea hobetzea . Portuko trafiko astunak (industria jarduera) bereiztea hiri trafikoetatik. . Inguruan gizarte, kultura eta kirol ekipamenduak jartzea. . Hiri zentralitate berri bat eratzea, portuko jarduerara bideratutako eta orain erabiltzen ez diren lurretan. . Hiribideen eta bideen urbanizazioen kalitatea hobetzea, irisgarritasun irizpideekin. . Lur gaineko aparkalekuak jartzea. . Herritar guztien aisialdirako hiri parkeak sortzea. <p>2013ko aurrekontuaren kontura gauzatuko diren jarduerak Pasaiko udalerrian egingo dira. Aurrekontuko programa honen bidez finantzatuko dira Pasaiko Udalarekin sinatutako hitzarmenean jasotako jardura hauek:</p> <p>1.- Ziriza</p> <p>Jardueraren xedea da Ziriza eraikina eraberritzeko lanak egitea, Herrera iparreko antolaketa berriko kultur zentroa eta gunen nagusia izate aldera.</p> <p>2013ko aurrekontua: 900.000,00 €</p> <p>Programaren %ekoa: 22,44</p> <p>2.- Pasai Donibaneko gizarte, kultura eta kirol eraikina. Lehen fasea.</p> <p>Jardueraren xedea da gauzatzea izkinako elementu gisa eta Nabalaldeako portuko nahiz industria jarduera eta Bizkaia plaza hiri eremua bereizteko egin asmo den erakinaren egitura eta itxitura inguratzailea, Begiristain SL sozietateak idatzitako eta Udalak onartutako proiektuaren arabera.</p> <p>2013ko aurrekontua: 1.100.000,00 €</p>
---	--

Programaren %ekoa: 27,43

3.- Usozko kirol ekipamendua

Jardueraren xedea da kirol instalazioak egitea Usozko zelaia bezala ezagutzen den eremuan, frontoi estali bat eraikita, udal plangintzetan eta Pasaiaiko Udalak idatzitako aurreproiektuan aurreikusitakoa garatuz.

2013ko aurrekontua: 510.000,00 €

Programaren aurrekontuaren %ekoa: 12,72

4.- Arrain-lonja berria egitea

Jardueraren xedea da egungo arrain-lonja eraitea eta berri bat egitea. Hitzarmenak jarduera honetan duen partaidetza honen mende geratzen da: egintzak inguru hirigintza aldetik hobetzea eta, beraz, eremua biziberritzea, portua eta hiri arteko harremanek dituzten arazoak konpondu ahal izateko, azpiegituraren neurriak murriztuta, jarduera gogaikarriak zorupera aldatuta, jardueratik sortzen diren espazio libreen hiri kalitatea bermatuta eta jarduerari neurri zuzentzaileak ezarrita.

2013ko aurrekontua: 1.500.000,00 €

Programaren aurrekontuaren %ekoa: 37,41

1etik 3ra bitarteko ekintzek beren baitan hartzen dute lanak gauzatzea nahiz obra zuzendaritza. Ekintza horiek izapidetzeko eta gauzatzeko ardura Pasaiaiko Udalarari dagokio.

4. ekintzaren (lonja) izapidetzearen eta gauzatzeko ardura emakidaren erakunde titularrari dagokio.

Hartzaileak:

2013an finantzatuko diren jarduerak Pasaiaiko herritar guztiei zuzenduta daude.

Hiri espazio publikoetan egiten diren esku-hartzeak, espazio irekietan nahiz eraikietan, gizon-emakumeen eguneroko bizimoduan eragiten dute, horregatik, bada, genero ikuspuntutik aztertu behar da hiri espazioaren erabilera eta gozamena.

Esku-hartzeen hartzaileak Pasaiaiko herritarrak izanik, hasteko, udal erroldako datuak aztertu ditugu, generoaren ikuspuntutik eta adin tartearen arabera:

Adierazlea: 2011ko abenduaren 31ko errolda datuak

PASAIA

**Genero
azterketa
kuantitatibo
a**

Adin tarteak	Gizonak	Guztira %	Emakumeak	Guztira %	Guztira	Guztira %/tarteak
0 - 16	1.112	14,80	1173	13,98	2.285	14,37
17 - 25	916	12,19	967	11,52	1883	11,84

26 - 65	3.729,00	49,63	3.579,00	42,65	7.308,00	45,95
66 - 75	789,00	10,50	964,00	11,49	1.753,00	11,02
>75	968,00	12,88	1.708,00	20,36	2.676,00	16,82
Biztanle kopurua	7.514	47,24	8.391	52,76	15.905	

Lehen irakurketan ikusten da udalerriko emakumeen ehunekoa 5,51 puntu handiagoa dela gizonenena baino (% 52,76 emakumeak eta % 47,24 gizonak).

Adin tarteen arabera, emakumeen ehuneko handiena (% 42,65) 26 eta 65 urte bitarteko tarteari dagokio, eta, ondoren, 75 urtetik gorako tartea dator (% 20,36). Ehuneko txikiagoa dauka 0 eta 16 urte bitarteko tarteari (% 13,98) eta ondoren datoz 17 eta 25 urte eta 66 eta 75 urte bitarteko tarteari (% 11,5 inguru).

Halaber, interesagarria da aztertzea emakumeen jarduerari buruzko datuak, hiri ingurunea eraldatzeak jardueran duen eragin positiboa edo negatiboa geroago ezagutze aldera.

Euskal Estatistika Erakundearen datuak, Pasaiari dagokionez.

(eskuragarri dauden azken datuak)

* 16 urte edo gehiagoko emakumeen lan merkatua:

Okupazio tasa (2006): % 57,68

Jarduera tasa (2010): % 41,19

Emakumeen langabezi tasa (2011): %10,57 (44 urtetik gorakoak % 40,20)

* Familiak eta familia guneak (2001):

Familia kopurua: 6.037

Ama seme-alabekin osaturiko guneen ehunekoa: % 15,82

* Orik 16 urtera bitarteko hezkuntza (2010):

Araubide orokorreko irakaskuntza. Ikasleak guztira: 1.831

Haur hezkuntzan matrikulatutako ikasleak: 680

Haur hezkuntzako haurrak (Orik 4 urtera bitartekoak): 98,07%

Lehen hezkuntzan matrikulatutako ikasleak: 703

DBHn matrikulatutako ikasleak: 233

Eguneroko hiri bizitzan duen eraginaren arabera, 2013an finantzatu beharreko hiri azpiegiturako bi talde bereizten ditugu eta jarduerak aurrekontuan duten ehunekoa adierazten dugu:

. Bizitoki ehunaren gertuko azpiegitura (kaleak, plazak eta abar): % 37,41

	<p>. Kirol, gizarte eta kultura ekipamendu publikoak: 62,59%</p>
<p>Gogoeta kualitatiboa</p>	<p>“GENEROA ETA POLITIKA PUBLIKOAK: AURREKONTUA GENERO IKUSPUNTUTIK” izeneko II. IKASTAROAREN laburpena (Interneten argitaratuta dago). Genero adierazleak obra publikoetan eta hirigintzakoetan. Gloria Alarcón irakaslea, Murtziako Unibertsitateko Arlo Publikoko Ogasuna eta Ekonomia Saila:</p> <p><i>Oinarrizko azpiegituren eremuan generoaren garrantzia aztertzeak berekin dakar ikustea, alde batetik, azpiegiturek nola eragiten dien emakumeei, haiek erabiltzerakoan eta beraien ongizatean, eta, bestetik, eskaintzen dien lanean duen eragina, lana sortuta edo rol femeninoak onartutako karga kenduta, azpiegitura horiek eskaintako zerbitzu publikoaren bidez.</i></p> <p><i>Azpiegiturretan generoarekin loturik dauden gaitako batzuk hauek dira:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> * Emakumeek gehiegizko denbora-karga pairatzen dute, zeregin asko dituztelako: Ugalketa, produkzioa eta komunitarioa, * Emakumeek joera dute parte-hartze murriztagoa izateko erabakiak hartzerakoan. * Kultur faktoreen eta garraio eta diru baliabideen gaineko kontrol maskulinoaren alderdiak direla eta, emakumeek mugikortasun txikia edo hutsa izaten dute, askotan. Gainera, mugikortasuna aztertu denean eta aztertzen denean erabiltzen den ikuspuntua da pertsonak leku batetik bestera mugitzea, lehenetsua emanik etxetik lanerako joan-etorriei, etxeko eginkizunetarako beharrezko direnen aldean. * Segurtasuna, nagusiki emakumeekin zerikusia duen gaia, oso gutxi hartzen da kontuan azpiegiturak diseinatzerakoan, kostu ekonomiko handia duten mantentze eta kontrol neurriekin lotuta dagoelako. <p><i>Emakumeentzako garrantzizkoak diren azpiegiturak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> * Hiri espazioa (kaleak, plazak, lorategiak, espaloiak, seinaleak eta abar) * Etxebizitza (barneko eta kanpoko diseinua) * Mugikortasuna (garraio publikoak) * Segurtasuna (argiztapena, zaintza) * Zeregin “femeninoari” loturiko azpiegiturak <ul style="list-style-type: none"> - Adingabeen eta adinekoen zaintzak * Emakumeen eta nesken ongizatearekin loturiko azpiegiturak <ul style="list-style-type: none"> - Aisia - Kirola - Kultura <p><i>Azpiegiturretan egiten den gastuari buruzko politikek oso zeregin garrantzitsua daukate eredu aldaketa bat bultzatzeko, berdintasunean oinarritutako gizarte baten aldekoa, izan ere, egiten diren azpiegituren arabera, sexu arteko desberdintasuna finkatzen duten rolen egiturazko aldaketa egin ahal izango da edo ez da egingo.</i></p> <p>Hortaz, baieztatzen dugu 2013an finantzatu beharreko jarduerak garrantzitsuak direla Pasaiako emakumeentzat (udalerriko biztanleen %52). Programaren aurrekontuaren %62,59a emakumearen ongizatearekin loturiko azpiegiturretara dago bideratutako eta gainerako % 37,41a, berriz, egun degradatutako dagoen hiri espazioa hobetzera.</p>

Lurralde Antolaketa eta Sustapen Orokorra: **INGURUMENENKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA**

DEPARTAMENTUA ETA €	INGURUMENENKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA 07 38.295.431 EUROS			
Programa eta €	Izena: Lurralde Antolaketa eta Sustapen Orokorra Kodea: 22 Generoaren garrantzia: Ertaina Aurrekontua: 2.048.705 euros (Capítulo 1: 1.142.388) (Capítulo 6: 406.317) (Capítulo 7: 500.000) Oharra: Aurreko legealdian, programa hau beste Departamentu bati zegoen esleituta			
		2010	2011	2012
GASTUA, EUROTAN		2.059.160	1.688.660	2.048.705
GFA OSOKO AURREKONTUAREKIKO PORTZENTAJEA		4,7%	4,3 %	5,35%
Programaren helburuak, hartzaileak eta jarduerak	<p>Helburuak: Aurrekontu-programa honek Departamentuaren ohiko jardunbideak biltzen ditu, hain zuzen ere Hirigintzako, Lurralde Ereduko eta Datu Espazialen Azpiegiturako esparruetakoak. Zenbatekoa pertsonal-gastuen eta inbertsio-gastuen artean banatzen da soilik. Lehenengoa Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentuak egindako azterketa-esparrua da, eta aztertuko dugun bigarrenak 2012ko programaren gastuen % 24 osatzen du.</p> <p>Inbertsioen % 90 Datu Espazialen Azpiegituren artapenerako erabiltzen da, eta beste % 10 Hirigintzako Espedienteak digitalizatu eta GAOk Hirigintzako Espedienteen Datu Basera dituen estekak artatzeko. Azken bi helburu horiek Hirigintza ataleko barne-kontsumorako erabiltzen dira "horien azken hartzaileak ez baitira pertsona fisiko edo juridikoak, edo ez baitutute eraginik izango baliabideak eskuratzeari eta kontrolatzeari dagokionez". Horregatik, gure ustez, ez dira genero-garrantziaren aldetik egokiak, eta beraz, ez dira aztertuko.</p> <p>Jarduketak: Artapen-jardueretan egiten den inbertsioa biltzen du programak, zehazki 3 esparru nagusitan:</p> <p>1. Gipuzkoako azpiegitura geodesikoa. GNSS sentsoareak, sentso meteorologikoak, itsasoaren mailaren sentsoareak, seinale geodesikoak, GNSS Estazio Sareko datu geodesikoak eta planimetria, altimetria eta grabimetria erreferentziako seinaleak artatzeko jarduerak. Hartzaileak: Topografoak, Herri Administrazioak, eta bazterreko eraginarekin, sektore zientifikoa. 2012ko aurrekontua: 91.245 euro.</p> <p>2. Gipuzkoako Udal Mapa. Udalen arteko mugaketa lerroen inguruko lanak, eta mugarrien muga-lerroak egiaztatze lanak. Hartzaileak: Herri Administrazioak. 2012ko aurrekontua: 31.829 euro.</p>			

3. Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura

Gipuzkoako datuak, metadatuak, zerbitzu eta informazio geografikoa, topografikoa, ortofotografikoa eta kartografia historikokoa biltzen ditu Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegiturak (GDEA), eta horrelako informazioa lortu, prozesatu, gorde eta banatzeko ekintzak daude horren artapenaren barne. Gure bulegoetan egiten diren kontsulta gutxi batzuk izan ezik, informazio gehiena modu telematikoz iristen zaigu, b5m.gipuzkoa.net webgunearen bitartez.

Hartzaileak:

Gipuzkoako herritar guztiei dago zuzenduta, Gipuzkoatik kanpoko erabiltzaile batzuk ere badauden arren. Hala, b5m.gipuzkoa.net webgunean, erabiltzaileen % 57 gipuzkoarrak dira, % 16 Euskal Herrikoak (Akitania barne), % 34 Espainiako estatukoak, eta % 3 Espainiatik kanpokoak.

2.461 erabiltzaile ezberdinek erabiltzen dute egunero b5m.gipuzkoa.net webgunea. Hala ere, ez daukagu erabiltzaileei buruzko daturik (Generoa, Adina, Ikasketak eta abar), informazio modu librean ikus baitaiteke, alta eman beharrik gabe, edo aldez aurretik galdetegirik bete beharrik gabe. Gure ustez, erabiltzaile askok erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza dute, topografia, ingeniariaritz, arkitektura eta funtzio publikoko esparruetako profesional askotan erabiltzen baitute. Halaber, aipatutako webgunean eta beste webgune batzuetan erabiltzaile orokorrak ere baditugu, Lurraldebus, Dbus, Mugipuzkoa, GipuzkoaMendizMendi, GureGipuzkoa eta bestelako webguneetan ere b5m.gipuzkoa.net webgunearen zerbitzuak erabiltzen baitira.

2012ko aurrekontua: 247.000 euro

Programa Gipuzkoako herritar guztiei zuzenduta dagoenez, adin-tartearen eta generoaren araberako erabiltzaile potentzialak kalkulatu dira, Internet gehien erabiltzen duten adin-tartea 16 eta 74 urte bitartekoa dela kontuan hartuta. Haurrak eta 74 urtetik gorako jendea ez ditugu kontuan hartu, Internet oso gutxi erabiltzen dutelako. Horrek ez du esan nahi aipatutako adinetan erabiltzailerik ez dagoenik, horien eragina oso apala dela baizik. Herritar eta erabiltzaile potentzial bakoitzeko, Kontusail honetan egin den inbertsioa ere zehazten da.

Adierazlea: Errolda-datuak, iragan urteko abenduaren 31n.

**Azterketa
kuantitatiboa,
generoaren
arabera**

Urtea	2010	2011	2012	% 2012
GDEZ inbertsioa	935.000 €	650.000 €	370.000 €	
Inbertsioa/biztanleko	1,32 €	0,92 €	0,52 €	
Emakumeak Gipuzkoan	360.124	361.972	363.595	
16-24 urte bitarte	26.394	26.807	26.494	% 7,3
25-54 urte bitarte	156.488	156.730	155.855	% 42,9
55-74 urte bitarte	81.824	81.373	82.217	% 22,6
Erabiltzaile potentzialak (16 -74 urte bitarte)	264.706	264.910	264.566	% 72,8
Gizonak Gipuzkoan	347.388	347.926	348.939	
16-24 urte bitarte	27.994	28.300	27.977	% 8,0
25-54 urte bitarte	163.197	162.548	161.173	% 46,2
55-74 urte bitarte	76.601	75.501	76.594	% 22,0
Erabiltzaile potentzialak (16 -74 urte bitarte)	267.792	266.349	265.744	% 76,2
Inbertsioa/Erabiltzaile potentzialeko	1,76 €	1,22 €	0,70 €	

Generoaren ikuspegitik, emakumeen % 72,8 erabiltzaile potentzialak dira, eta gizonen % 76,2 ere bai. 2012ko abenduaren 31n Gipuzkoako populazioaren adin-piramidearen ezaugarriengatik ematen da 4,7 puntuko alde hori.

Interneten erabilerari dagokionez, estimazio bat egiten badugu, hartzaile posibleen beste doiketa bat egin dezakegu. Gipuzkoan Internet erabilerari buruzko daturik ez dugunez, 2007. urtean Espainian eta Europar Batasunean Interneten batez besteko erabilerari buruz bildu ziren datuak hartuko ditugu kontutan, erabiltzaile posibleen taldeak osatzeko. 2007ko erabilera-portzentaje berak aplikatuz, hauek dira azken 3 urtetako emaitzak:

Adierazlea: Errolda-datuak, iragan urteko abenduaren 31n.

Adierazlea: Seybert 2007. Gender Differences in the use of computers and the Internet. Eurostat.

Datu estimatuak (Espainia 2007)	2010	2011	2012	% 2012
16-24 urte bitarteko emakumeak	20.059,4	20.373,3	20.135,4	% 76
25-54 urte bitarteko emakumeak	76.679,1	76.797,7	76.369,0	% 49
55-74 urte bitarteko emakumeak	7.364,2	7.323,6	7.399,5	% 9
Erabiltzaile estimatuak	104.102,7	104.494,6	103.903,9	% 28,6
16-24 urte bitarteko gizonak	21.835,3	22.074,0	21.822,1	% 78
25-54 urte bitarteko gizonak	94.654,3	94.277,8	93.480,3	% 58
55-74 urte bitarteko gizonak	14.554,2	14.345,2	14.552,9	% 19
Erabiltzaile estimatuak	131.043,8	130.697,0	129.855,3	% 37,2
Inbertsioa /Erabiltzaile estimatuko	6,76 €	4,71 €	2,70 €	
Datu estimatuak (EBko batez bestekoa 2007)				
16-24 urte bitarteko emakumeak	21.379,1	21.713,7	21.460,1	%81
25-54 urte bitarteko emakumeak	93.892,8	94.038,0	93.513,0	% 60
55-74 urte bitarteko emakumeak	17.183,0	17.088,3	17.265,6	% 21
Erabiltzaile estimatuak	132.455,0	132.840,0	132.238,7	% 36,4
16-24 urte bitarteko gizonak	23.235,0	23.489,0	23.220,9	% 83
25-54 urte bitarteko gizonak	107.710,0	107.281,7	106.374,2	% 66
55-74 urte bitarteko gizonak	26.810,4	26.425,4	26.807,9	% 35
Erabiltzaile estimatuak	157.755,4	157.196,0	156.403,0	% 44,8
Inbertsioa /Erabiltzaile estimatuko	5,34 €	3,73 €	2,13 €	

Taulan aipagarria da genero-mailan, Internet-erabileran alde handiak daudela, batez ere 55 eta 74 bitarteko adin-tartean, bai Espainiako estatu mailan (110 puntu), bai EBko mailan ere (67 puntu); gazteen adin-tartetan, berriz, gizon eta emakumeen arteko aldea 3 puntukoa da. Datu horiek 2012ko Gipuzkoako populaziora aplikatzen baditugu, Gipuzkoako emakumeen populazioaren % 28-36,4k Internet erabiliko luke, eta beraz, baita Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegitura ere. Gizonei dagokionez, berriz, % 37,2-44,8k erabiliko luke Internet eta Datu Espazialen Azpiegitura. Hau da, Espainiako estatuko datuekin alderatuta, generoen artean 30 puntuko aldea dago; eta EBko batez bestekoekin alderatuta, 23 puntuko aldea.

Ez dugu Gipuzkoa mailan edo gure errealtate sozioekonomikoaren antzekoa den beste europar eskualderen batean Interneten erabilerari buruzko erreferentzia berriagorik aurkitu; gainera, bigarren kasuan, errealtate sozioekonomiko hori alde aurretik zehaztu beharko litzateke. Estatu mailako datu eguneratuak erabiltzen baditugu, eta azken 3 urtetan berdin aplikatzen baditugu, emaitza hauek lortzen dira:

Adierazlea: Errola-datuak, iragan urteko abenduaren 31n.

Adierazlea: INE 2011 Encuesta sobre Equipamiento y Uso de Tecnologías y Comunicación en los hogares 2011

Datu estimatuak (INE, Espainia 2011)	2010	2011	2012	% 2012
16-24 urte bitarteko emakumeak	24.256,1	24.635,6	24.348,0	% 92
25-54 urte bitarteko emakumeak	108.602,7	108.770,6	108.163,4	% 69
55-74 urte bitarteko emakumeak	15.587,5	15.501,6	15.662,3	% 19
Erabiltzaile estimatuak	148.446,2	148.907,8	148.173,7	% 40,8
16-24 urte bitarteko gizonak	25.530,5	25.809,6	25.515,0	% 91
25-54 urte bitarteko gizonak	117.012,2	116.546,9	115.561,0	% 72
55-74 urte bitarteko gizonak	22.827,1	22.499,3	22.825,0	% 30
Erabiltzaile estimatuak	165.369,9	164.855,8	163.901,1	% 47,0
Inbertsioa /Erabiltzaile estimatuko	5,17 €	3,60 €	2,06 €	

Argi dago, 2007 eta 2011 bitarte, gizon eta emakumeen arteko eten digitala gutxitu egin dela, eta gaur egun, Estatu mailan, bi generoen arteko tartea 15 puntukoa izango litzatekeela; gure kalkuluen arabera, Gipuzkoan apalagoa izango litzateke datu hori. Aipagarria da, gazteen adin-tartean, ia ez dagoela gizon eta emakumeen arteko alderik.

Analisia egiteko beste ikuspuntu bat 2012rako ia kontratatuta dagoen programa honetako azpikontratazioan dagoen genero-aldea da. Programarako % 80 profesional autonomoekin eta enpresa txikiekin egiten denez, genero-tartea adierazten duten ratioak aurkez ditzakegu. Datu fidagarririk ez dugunez, ezin dugu alderik zehaztu gizon eta emakumeen arteko benetako dedikazioan, edo enpresa txikien kasuan, teknikari bakoitzak jardundako orduetan, baina gure ustez, beste adierazle posible bat izan daiteke.

Adierazlea: Kontratatutako teknikarien generoa. Gure datuak.

Urtea	2009	2010	2011	2012
GDEZ inbertsioa	1.365.000 €	935.000 €	650.000 €	370.000 €
Kontratatutako profesionalak	38	32	20	17
Emakumeen %	% 26,3	% 37,5	% 40,0	% 35,3
Gizonen %	% 73,7	% 62,5	% 60,0	% 64,7

Emaitzen arabera, profesionalen % 40 emakumeak dira; eta programa honek kontratatutako teknikarien azken 4 urtetako batez bestekoan, % 34,8 dira emakumeak. Datozen urtetako joera nolakoa izango den ikusi behar den arren, 2007 eta 2012 bitarte, gero eta emakume gehiago kontratatu direla esan daiteke. Emakumeen kopurua areagotu egin da, baina ez diskriminazio positiboko politikak aplikatu direlako (debekatuta baitaude kontratazio administratiboan), programazio-lanetarako eta nibelazio geometriko lanetarako aurrekontua murriztu baitelako baizik, eta bertan gizonezko populazioa nagusi baita.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Erabiltzaile potentzialen analisiak eta kontratatutako pertsonalari buruzkoak 15 puntuko genero-aldea azpimarratzen dute. Halaber, azterketa horiek egiteko erabili diren adierazleek agerian utzi dute 2007 eta 2012 bitarte, gizon eta emakumeen arteko aldea murriztu egin dela, baina oraingoz behintzat ez dugu horri buruzko datu esanguratsurik.

Oharrak

Programa honen gaia aztertzeke orduan, aipagarria da zenbait estereotipo kontuan hartu behar direla, esaterako, azken erabiltzaileei dagozkien jokabide espazialeko genero-desberdintasunei buruzkoak (esaterako, Dabbs eta I. 1998, Eals & Silverman 1994, Saucier et al. 2002), baita kontratatutako pertsonalari dagokionez, programazioari buruzko

ingurune eta jarrerak ere (esaterako, Beyer et al 2003, Mitra et al 2001). Alde horiek, benetakoak balira (esaterako, Hoffman et al. 2011, Bailey et al. 2012), gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun nabariak sortuko lituzke hasiera-hasieratik, eta beraz, ezberdintasun horiek kontuan hartu beharko lirateke etorkizuneko azterlanetan.

Halaber, gure ikerketa oso sakona izan den arren, aitortu behar dugu ez daukagula adierazle fidagarriak. b5m.gipuzkoa.net webguneko datu espazialen benetako erabiltzaileen espektroan genero arteko ezberdintasunak barne hartu beharko lituzkete etorkizuneko adierazle horiek. Horrez gain, adierazle horiek bi erabilera mota bereizi beharko lituzkete: profesionalek egiten duten ohiko erabilera (topografoek, arkitektoek, ingeniariak eta herri administrazioek), eta erabilera orokorrek egiten dutena. Aurrekontu-egoera zaila denez, eta aurtengo kontusaila agortuta dagoenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin du gai honi buruzko adierazleak zehazteko azterlana enkargatu. Gainera, adierazle fidagarriak zehazteko metodologia konplexua denez (esaterako, Vicente Cuervo & López Menéndez 2003), oraingoz zain geratuko gara, etorkizunean aholkularitza egokia jasotzeko asmoz.

Erreferentziak:

- Bailey DH, Lippa RA, Del Giudice M, Hames R & Geary DC. 2002. Sex differences in spatial abilities: Methodological problems in Hoffman et al. PNAS 109 E583
- Beber S, Rynes K, Perrault J, Hay K & Haller S. 2003. Gender differences in computer science students. SIGCSE 03 Proceedings of the 34th SIGCSE technical symposium on Computer Science Education, 49-53. ACM New York.
- Dabbs JM, Chang, EL, Strong R & Milun, R. 1998. Spatial Ability, Navigation Strategy and Geographic Knowledge among Men and Women. *Evolution and Human Behavior*, 19: 89-98.
- Eals M & Silverman I. 1994. The Hunter-Gatherer theory of spatial sex differences: Proximate factors mediating the female advantage in recall of object arrays. *Ethology and Sociobiology*, 15: 95-105.
- Hoffman M, Gneezy U & List JA. 2011. Nurture affects gender differences in spatial abilities. PNAS, 108: 14786-14788.
- Mitra A, LaFrance B & McCullough S. 2001. Differences in Attitudes between Women and Men toward computerization. *Journal of Educational Computing Research*, 25: 227-244.
- Saucier DM, Green SM, Leason J, McFadden A, Scott B & Lorin J. 2002. Are sex differences in navigation caused by sexually dimorphic strategies or by differences in the ability to use strategies?. *Behavioral Neuroscience*, 116: 403-410.
- Vicente Cuervo, MR & López Menéndez AJ. 2003. Indicadores de la Sociedad de la Información: Una revisión crítica. *Anales de Economía Aplicada*, XVII Reunión ASEPELT.